Idatzi esaldietako hutsuneetan aukera zuzena eta markatu erantzunak test zutabean.
Zalantzarik izanez gero, kontsultatu ariketa bakoitzaren fitxa (ezkerreko biribilean zehaztuta).

**Non?**

1 — 1. Hango biztanle guztien % ........................ bakarrik dute bidaiatzeko aukera.
A 25ek B 25

32 — 2. Beti izan dut gogoan bidaia handi bat ................................ .
A egin B egitea

44 — 3. Non ezkutatu duzu, ba? — .................................... Ez dut ezkutatu eta!
A Inon ere ez B Inon

55 — 4. Oraintxe ....................................... naiz Maiterekin egon behar dudala arratsaldean.
A gogoratu egin B gogoratu

5 — 5. Gauza batzuk kontatzen ari ................................ Janire Nereari.
A zaio B zaizkio

51 — 6. Esan ziguten goizean ...................... arratsaldean etorriko zirela.
A ala B edo

47 — 7. Gure ikastetxean eta zuenean arazo ................................ ditugu.
A berberak B berdinak

52 — 8. Ez dago esan beharrik. Hori badakigu ................................ .
A guztiek B guztiok

1 — 9. Hiru jokalari alda daitezke eta gure ........................ hirurak aldatu ditu jada.
A taldeak B taldea

13 — 10. Han ikusi nituen gauzek hunkituta utzi ................................ .
A ninduten B zidaten

45 — 11. Maiteminduta bide daude, zeren sarritan haserretu arren berriz elkartzen ................................ .
A baitira B bait dira

36 — 12. Irudimen ................................ behar da, gero, horrelako gezurra asmatzeko!
A asko B handia

15 — 13. Ez du ekarri A .............. eskatu geniona B .............. .
ere

48 — 14. Denek dakitela hori? Bada, nik gaur entzun dut ................................ .
A lehenik B lehenengoz

4 — 15. Apaizekin egon zenean, laguntza handia jaso zuen ................................ .
A haiengandik B haietatik

13 — 16. ........................ nahiago dut hara joan baino herriko jaietan geratu.
A Neuk B Nik

57 — 17. Urrun ........................ dago lehen aipatu diguten ostatua?
A ote B omen

46 — 18. Armairu zahar hau kendu nahi dugu, baina ez daukagu nori ................................ .
A eman B ematerik

49 — 19. Ospe handia hartu du eta orain urte osoan ibiltzen da ...................................... plazarik plaza.
A bertsolari B bertsolari bezala

1 — 20. 100 gradura iristean, ........................ irakiten hasiko da.
A ura B urak

| | A | B |
|---|---|---|
| 1. | | |
| 2. | | |
| 3. | | |
| 4. | | |
| 5. | | |
| 6. | | |
| 7. | | |
| 8. | | |
| 9. | | |
| 10. | | |
| 11. | | |
| 12. | | |
| 13. | | |
| 14. | | |
| 15. | | |
| 16. | | |
| 17. | | |
| 18. | | |
| 19. | | |
| 20. | | |